

EZ DONK 25

EZ DOK OSPAKIZUN ARRANDIATSUETARAKO UNEA SORRERA eta IBILBIDEA

upv-ehuren 25. urteurrena: EZ DONK 25

UPV-EHU gizartearekin uztartuta dagoen instituzioa da, edo horixe izan da 25. urteurrenaren kariatz antolatutako propaganda kanpainan Perez errektoreak eta bestelako hezkuntza eta politika agintariek sinestarazi nahi izan digutena. Asko tematu dira, gainera ideia horren errepikapenean, plataforma hau osatu genuen eta dugun kide eta eragileek uste dugunaren arabera, preseski UPV-EHUren ibilbideak kontrakoa erakutsi duelako bi hamarkada eta erdian.

Beharrezkoa da ordea, egitate hori azalaraztea orain arte entzun dugun 25 urte hauen bertsio bakarra soilik entzuten jarrai ez dadin, bertsio ofizialaz besteko errealitatea bizi izan duten beste ahots batzuei espazioa emateko.

Ez Donk 25 plataforma UPV-EHUren 25 urteurrenaren inguruko iritzi kritikoez bat egin duten gunea da, hain zuzen ere kritikotasun hori komuntzat hartzen duten eragile eta banakoen gunea. 25. urteurrenaren inguruko kanpaina herrikoia gauzatzea baimendu duen gunea.

Helburuak

1. UPV-EHUren ibilbidearen gaineko ikuspegi kritikoa gizarteratzea.
2. Bestelako unibertsitate bat posible eta beharrezkoa dela aldarrikatzea.

Parte hartzaileak

Parte hartu nahi duen oro izan da eta izango da ongi etorria. Hala, eragile eta kolektibo anitz eta ezberdinek hartu dute parte, orain artean, plataforman.

Izenetik Izanera foroa, Irakasle Kaleratuen kolektiboa, Garraio zerbitzu duinaren aldeko plataforma, 7 Baietz aldizkariko kideak, Euskal Herriak Bere Eskola, LAB, Ikasle Abertzaleak, Ikasle Presoen aldeko Taldea, Euskal Adarrako kideak izandakoak, Ikasle errepresaliatuak, zenbait ikasle ohi,

Mezua

Bakoitzak nahi duen iritzi kritikoa adierazteko askatasuna izateko planteamendua egin zen plataformaren sorreratik bertatik, eta hala izan da honek antolatu dituen ekimen guztietan, bakoitzak bere iritzia bota du inongo muga edo zentsurarik gabe. Hots, urte guzti hauetan UPVren inguruan izan diren pasarte, arazo eta hutsune guztiak azalarazteko bozgailea izan da EZ DOK 25 plataforma.

Plataformaren helburua beraz, ez da guztiok batera ahots bakarra irudikatzea baizik eta inon plazaratu ez eta existitzen diren ahots kritiko guztien bilgune izatea da.

Orain arteko ekimenak

1. EZ DOK 25 plataformaren kontra – manifestuaren eta helburuen aurkezpena. (05_11)
2. Liburu/aldizkari bat argitaratu. Non plataformako kide guztien orain arte entzun ez diren ahotsak lekua izango duten.
3. Gidoirik gabeko prentsaurrekoa non plataformako kide orok nahi zuena adierazi zuen. (05_11_23).
4. Informazio astea campusetan.
5. EZ DOK 25, Ez dugu ezer ospatzeko jaialdia Leioako campusean.
6. Ikasturteko lehen klaustroarean hasieran elkarretaratzea , klaustroan 25 urte hauen balantzea egitea eskatzeko errektore taldeari. Ospakizun handinahiak egiteko baino, 25. urteurrenak ibilbideaz eztabaidatu eta ondorioak ateratzeko baliatu beharko bait litzateke.